

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

335 - 2025eko MAIATZA



BATERA JOKATUZ,
DENOK GARA GARAILE



POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albistiren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: 660 476 041 telefonora deituz edo Whatsapp bidez idatziz.

2



Mailopeko bazkide izateak badu saria, Errigorako saskia!



Urtero bezala, Errigorako kaxak zozketa-tu ditugu Mailopeko bazkideen artean. Aurtengo sarituak Consuelo Gorostegi Otamendi eta Aitor Ezeiza Balda izan dira. Zorionak, bikote!

Urtean 50 euroko bazkidetza egiteko, 660476041 telefonora deitu edo formularioa bete honako helbide honetan: <https://mailope.eus/bazkidetu/>

Eskerrik asko Mailope sostengatzen duzuen guztioi!

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Araxes Ikas Komunitatea, Ilargi Etxarri, Izan Zubillaga, Jabier Leoz, Juan Antonio Garaikoetxea, Kirolmank, Lorea Eraso, Mikel Lasarte, Nerea Mazkieran, Joxe Mari Zabaleta, Olaia Uharte eta Plazaola Partzuergo Turistikoa.

· PUBLIZITATEA:

Irati Moreno - 660 476 041

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

02



POSTONTZIA

04



KUXKUXEAN Zorion agurrak

07



MAITE DITUT MAITE
Arruizko Gesala

8



ERREPORTAJEA
"Lekunberri ttakun herri".
Larraungo Txalapartariak (Imanol Ugarte Aramburu, Mikel Ijurko Saralegi eta Jabier Leoz Aristu)



12




BATZARRE

14



ELKARRIZKETA
"Egungo energia kontsumoarekin jarraitzea ez da batere jasangarria planetarentzat".
Lorea Eraso Cestau (Arribe)



18



KULTURA

22



KIROLA
"Denok gara garaile, areto-futbol inklusiboan jokatzean".
Miguel Angel Escamendi Iriarte, Unai Otermin Satrustegui eta Aitor Goikoetxea Iriarte



28



PLAZATIK PLAZARA
"Iraganean harri jasotzailea nintzen, gaur egun motozerrarekin eskulturak sortzen ditut".
Mikel Lasarte Artola (Azpirotz)



31



AGENDA

Amets Urkola Estanga

Maiatzaren 16an, 6 urte.

Zorionak, Amets!

Ederra da zu hazten ikustea.

Zarenagatik, asko maite zaitugu.

Musu asko zuretzat atte, ama, Xua,
izeba-osaba eta atton-amonen partez!**Ane Etxeberria Arguiñarena**

Maiatzaren 22an, 8 urte.

Zorionak Ane! Dagoeneko 8

urte! Egun bikaina pasa eta

orain bezain jator eta alai

jarraitu! Musu erraldoi bat

Eneko, aita, ama eta familia

guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu Whatsapp bidez **660 476 041** telefonora
hilaren 20a baino lehen.

**Lagunasesoría S.L.**

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin



eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



SUTEA A-15 ERREPIDE ALBOKO MENDATEAN

Apirilaren hasieran, Gipuzkoa aldera doan A-15 errepidearen aldamenean sute bat izan zen. Dirudienez, baimendutako belar batzuk erretzen ari zirela sua zabaldu eta mendi zati handi bat erre zen, ez zen zauriturik egon. Cordovillako suhiltzaileek, Ingurumeneko langileek, Foruzaingoak eta Guardia Zibilek parte hartu zuten sua itzaltzeko lanetan eta iluntzerako sutea itzaltzea lortu zuten.



'LURRA, JUSTIZIA ETA BAKEA' ESKATU DITUZTE PALESTINARENTZAT

Gernika Palestina Herri Ekimenak, mobilizaziorako deia egin zuen apirilaren 8an, Euskal Herri osoan.

Lekunberriko udaletxe aurrean hainbat herritar elkartu ziren eta Palestinarentzat *Lurra, justizia eta bakea* eskatu zituzten, Israel palestinarren aurka gauzatzen ari den genozidioa salatzearekin batera. Antolatzaileek palestinarren aldeko elkartasuna adieraztearen garrantzia azpimarratu zuten.



ESKUALDEKO HONDAKIN BIOLOGIKOEN KUDEAKETA JASANGARRIA HOBETZEN ARI DA

Mendialdea Mankomunitateak, 2024an, 2023an baino % 50 hondakin biologiko gehiago bildu zituen.

Hala ere, Nafarroako Hondakinen Planak ezartzen duen % 70eko bilketa lortzeko, lan handia egin behar dela adierazi dute bertako arduradunek.

Dagoeneko 35.000 euro inbertitu dituzte 2024an, eta horietatik 34.000 euro dirulaguntzetatik jaso dira.

► Izan Zubillaga Irazu (Atallu)



Bukatu dira elurrak baina ez oraindik euriak, eskerrak eman zaizkie tarteko egun argiak.

Eguzkia ta lainoak argitu dute zuloa ditugu udako egunak gu denon atean joka.

Mendiko ilunabarrek dute bestelako xarma tenperatura igotzek eduki dute nahiko lana.

Zuhaitz lore ta larreek egin digute eztanda gozatu egun politak asko gelditzen dira ta.

Doinua: Habanera. **Hurrengoa:** Haizea Goikoetxea Erbiti (Betelu).

HIZKUNTZA ESKOLAN

Laurogeiko hamarkadan, tarteka-marteka, eta, batez ere, bolada batzuetan, Iruñeko Hizkuntza Eskolara joatea egokitzen zitzaidan, euskara eskolak emateko. Izan ere, garai hartan, Nafarroako Gobernuak oraindik ez zeukan toki propiorik euskara ikastaro trinkoak emateko eta eraikin hura erabiltzen zuen, hain justu ere, zeregin hartarako.

Dagoeneko behin baino gehiagotan azaldu dudan bezala, ordurako ni gurpil aulkian mugitzen nintzen eta ikastetxe hartan ere, arazo batzuk izaten nituen sartzeko, ateratzeko eta baita barruan ibiltzeko ere. Nire kabuz, autonomiaz mugitzeko, alegia. Zehatzago esateko, honako oztopo hauexek ziren hara joaten nintzen bakoitzean gaitu behar izaten nituenak: sarrera nagusian espalo bat zegoen, arrapalarik ez zeukana; ezkaratz barruan ate handi, astun eta moldakaitz bat eta, jada eraikiner sartuta, hiru igogailu, baina denak botoiak oso goian zeuzkatenak.

Gauzak hala, eskolako zuzendariarekin hitz egin eta ea zer ondorio zekarkidan ikustea bururatu zitzaidan. Pentsatu eta egin. Garai hartan, hizkuntza eskolako zuzendari jauna, Andres Iñigo Ariztegi iturendarra genuen eta harexekin hitz egin behar. Momentua iritsita, aida batean, nire arazoak eta oztopoak kontatu nizkion, bai eta balizko konponbideak proposatu ere. Berak, berehalaxe, bere eskuetan zegoen guztia egiten saiatuko zela, hitz eman zidan. Alegia, Nafarroako Gobernuan eta Iruñeko Udalean izapideak eta kudeaketak egiten zituela, sarrerako espaloian arrapala bat egin zezaten, ezkaratz barreneko ate

baldar hartan txirrin bat jar zezaten atezainari deitzeko eta, azkenik, igogailuetan kanpoko eta barruko botoiak jaitz zitzaten, ni ere eroso iritsi ahal izateko.

Ordura arte, halako kasuetan, ezin da esan oso zorte eta arrakasta handirik izan nuenik. Beraz, aldi hartan ere, nahiko sinesgogor gelditu nintzen gai harekin. Baina, itxaropen pixka bat gordetzea ere beti komeni omen da eta hango okasio hartan ere, halaxe egin nuen.

Denbora, beti bezala, orduan ere, azkar eta etengabe joan zen aurrera eta, hara non gertatu zen, hiru hilabete baino lehen, egin beharreko lan guztiak burutuak zeudela! A zer ustekabekoa eta aldea beste kasu askorekin alderatuta! Izan ere, ordura arteko kasu gehienetan edo ez zidaten jaramonik egiten edota egiten baldin bazidaten, izaten zen oso-oso denbora luzea igaro eta gero, baina ez oraingoan bezain laster. Esate baterako eta urrutira joan gabe, Iruñeko udaletxean eta Agoitz kalean zegoen Pablo Sarasate kontserbatorioan. Baina, bueno, gertaera horiek aurrerago tratatuko ditut; gaur, momentuz, honekin geldituko naiz.

Argi dagoena zera da, alegia, Iruñeko Hizkuntza Eskolako kasuan, bere zuzendari zen Andres Iñigo Ariztegik, ez zidala inoren lotsarik sentiarazi. Baizik eta, alderantziz: mirespena, poza eta harrotasuna.

Xanti Begiristain Madotz
Auritz. 2021-05-28



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA




- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

Hurrengoa:

Iraia Astiz Legarra (Arruiz)



Ilargi Etxarri Santxez
(Arruiz)

maite ditut maite gure bazterrak

Arruizko Gesala

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 4,5 km
Desnibela: 100 m
Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Edozein egunetan familiarekin edo lagunekin, oinez, korrika zein mendiko bizikletaz egiteko bide egokia dela iruditzen zait, ez baita oso luzea eta erraz egiten da.

Bidea:

- 1 Ibilbidea Arruizko plazatik hasiko dugu eta iturriaren aldamenetik aldapan behera joango gara. Berehala, ezkerretara ateratzen den pista hartuko dugu.
- 2 Pista horretatik 400 metro inguru aurrera egin eta gero, bideak ezkerreantz jarraitzen duela ikusiko dugu, baina guk eskuinerantz doan bidea hartu beharko dugu.
- 3 Bide horretatik, 1,5 kilometro egingo ditugu aurrera. Ibilbide guztian bezala, marra horiak jarraitu beharko ditugu. Ezkerretara argazkian ageri den haritza ikusiko dugu eta berehala iritsiko gara gesalera.
- 4 Gesaletik ateratakoan eskuinerantz doan bidea hartuko dugu eta aldapan gora hasiko gara.
- 5 350 metro aurrera egin ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara. Guk eskuineko bidea hartuko dugu, herrira itzultzeko. Baina nahi duenak ezkerreko bidea hartu eta ibilbidea luzatzeko aukera izango du.
- 6 Azkenik, pista batera iritsiko gara. Bertatik, eguraldi ona bada, Mailoak ikusteko aukera izango dugu. Bidean aurrera eginez, herriraino iritsiko gara eta ibilbidea bukatuko dugu.

7



● ● Larraungo Txalapartariak (Imanol Ugarte Aramburu, Mikel Ijurko Saralegi eta Jabier Leoz Aristu)

Lekunberri ttakun herri

2025eko martxoaren 30ean ekitaldi berezia ospatu zen Lekunberriko Malkorrean, Txalaparta iraunkorraren inaugurazioa. Jabier Leoz, Mikel Ijurko eta Imanol Ugarte izan dira ekimenaren bultzatzaileak eta lanaren emaitza jendaurrean erakutsi zuten. Eguraldi bikaina egin zuen eta jende mordoa bertaratu zen. Momentu hunkigarriak ere izan ziren, ekitaldian bertako tradizioak eta kultura ardatz hartuta, txalapartaren transmisioan eta zabalkundean lan egin duten Goikoetxea, Zuaznabar, Zabalegi eta Artze familiak omendu zituztelako.

Omenaldia, proiektuaren abiapuntua

Jabier Leozek azaldu duenez, txalaparta finkoaren ideia duela 22 urte, Alkizuko mendian izandako topaketa batean sortu zen. Lagun batekin txalaparta jotzera joan zen Gipuzkoako txoko hartara, eta bertan, txalaparta jotzen ari zirela, bikote bat gerturatu zitzairen. Gizonak, Jabierri galdetu zion ea berarekin txalaparta jo nahi zuen, eta honek baietz erantzun zuen. Emakumeak, orduan, esan zion: "zuk badakizu zein den gizon hau? Gizon hau Joxean Artze da".

8

Txalapartaren egitura burdinezkoa da eta 50 urteko eukalipto zurezko taulek estaltzen dute. Antolatzaileek azaldu dute txalaparta jartzeko ez dutela edozein kokaleku aukeratu, "Lekunberriko Malkorra ingurune ederra eta lasaia denez, guneko egokia da txalapartaren oihartzuna hedatzeko". Proiektuak aurrera egiteko, Ondare

Kultur Taldearen laguntza ezinbestekoa izan dela adierazi dute. Lekunberriko eta Larraungo udalen laguntza ekonomikoa eta teknikoa ere garrantzitsuak izan dira, eta herriko dantzari, txistulari eta talde boluntarioen laguntza ere ezinbestekoa izan da; denen artean proiektuaren arrakasta ziurtatzea lortu zuten.

"Artzerekin topatzea oso berezia izan zen niretzat"

"Harrituta nago, oso pozik sentitzen naiz lortu dugun guztiarekin"

Jabier Leoz



Imanol Ugarte, Mikel Ijurko, Jabier Leoz Txalaparta finkoaren inaugurazioan.
Argazkia: Diario de Noticias

"Artzerekin topatzea oso berezia izan zen niretzat" azaldu du Jabierrek. Joxean Artze ezaguna zen 70eko hamarkadan, baserrietako txalapartaren ohiturei buruzko bilketa ugari egiteagatik, eta Jabierrentzat oso une garrantzitsua izan zen Artze bezalako pertsona bat modu bitxi hartan ezagutzea. "Geroago, Joxean Artze hil zenean, hura omentzeko, elkartu ginen leku hartan txalaparta finko bat jartzea pentsatu nuen, baina hori lortzeko oztopo ugari gainditu behar ziren" gehitu du Jabierrek. Gerora, Jabier Lekunberrira joan zen bizitzera. Inma Etxarri historialariak, iraganean, Malkorrean, txalaparta jotzen zela kontatu zion. "Oso berezia iruditu zitzaidan Inmak kontatutakoa, eta berarekin gaia aztertu nuen"



Goikoetxea, Zuaznabar, Zabalegi eta Artze familiak.
Argazkia: Diario de Noticias

azaldu du Jabierrek. Imanol eta Mikel ondoren batu ziren proiektura, Jabierrek aurrera egitea erabaki zuenean. "Imanolek eta Mikelek txalaparta jotzen zutela bane-kien, eta gainera, biak eskuekin oso trebeak dira" adierazi du Jabierrek. "Nik egia esan, eskuak mugikorre-rako ditudala dirudi. Haiek alderdi teknikoa landu zuten, Mikelek batez ere" gehitu du.

Imanolek adierazi duenez, Jabierrek eta berak pasa den abenduan egin zuten topo, Imanol Jabierren Mugarri proiektua ezagutzera joan zenean. "Konturatu ginen alboan bizi ginela, bera Lekunberrin eta ni Irurtzunen, eta elkarrekin txalaparta jotzeko

gelditzen hasi ginen" azaldu du Imanolek. "Berak ideia esan zidan, eta nik animoak eman nizkion, ideia batzuk azaldu, eta gero, Mikel hasi zen proiektua sakonago lantzen. Berak ideia finkoak eskaini zituen" gaineratu du.

Prozesuaren erronka sorkuntzaren giltzarri izan da

Mikelek, azaldu du egitura finkoa jartzeko lehenengo urratsetan egindako lana, "ez geneukan oinarririk, eta nik pieza batzuk sortu nituen leku desberdinetan txalaparta jotzeko". "Lortutako diruarekin materiala erosi genuen, lehenengo bi egur zaharrek hasi ginen eta orain sorta bat

dugu" jarraitu du.

"Berak ideia esan zidan, eta nik animoak eman nizkion, ideia batzuk azaldu, eta gero, Mikel hasi zen proiektua sakonago lantzen"

"Txalaparta sortzeko prozesua zaila izan zen"

Imanol Ugarte

"Txalaparta finko bat jartzeak, mantentzea eskatzen du, eta gainera, inork ez lapurtzeko eta bertan mantentzeko beharrezkoa da segurtasuna eskaintzen duen sistema bat ezartzea" azaldu du Mikelek. Egitura eta egurrak han mantentzeko sistema bat sortzeko hainbat saiakera egin zituzten. "Txalaparta sortzeko prozesua zaila izan zen, egurra malgu egon behar zen eta ezin zen guztiz estutu, horrela soinuaren kalitatea galtzen zelako" adierazi du Imanolek. Proiektuaren helburu nagusia txalapartaren tradizioa zabaltzea izan da, bereziki gazteen artean motibazioa sortzea eta erreleboa sustatzea xede



Txistulariak Lekunberriko Plazan

hartuta. "Txalapartaren erabilera zabaltzea izan da irizpidea; horretarako, instrumentua jotzeko erraztasunak eskaintzea, ezagutaraztea eta gazteak motibatzea ezinbesteko ardatzak dira" azaldu du Jabierrek. "Benetan gustatuko litzaidake gure herrian etorkizunerako erreleboa sustatzea, txalapartaren ondarea zaindu eta bizirik mantentzeko" jarraitu du Leozek, eta etorkizunean txalapartaren transmisioa eta ikas-kuntza gazteen artean indartzea funtsezkoa dela azpimarratu du. Orain, herriko jendeak eta nahi duen orok, txalaparta libreki jotzeko aukera dauka.

Inaugurazioan bitzakoak ez du preziorik

Txalaparta finkoaren inaugurazioa ospatzeko egindako ekitaldiaren amaieran, Mikelek azaldu du "oso gustura"

sentitu zela, "etxeko leihoa ireki eta txalapartaren soinua entzun nuen, zoriontsu sentitu nintzen". Jabierrek, berriz, lortutako emaitzarekin sentitu zuena adierazi du, "harrituta nago, oso pozik sentitzen naiz lortu dugun guztiarekin".

"Ez geneukan oinarririk, eta nik pieza batzuk sortu nituen leku desberdinetan txalaparta jotzeko"

"Etxeko leihoa ireki eta txalapartaren soinua entzun nuen, zoriontsu sentitu nintzen"

Mikel Ijurko



Arantxa Ansa eta Itziar Jauregi inaugurazio amaieran

Ekitaldi egunean eguraldi aparta egin zuen, eta jende ugari bildu zen Lekunberriko Malkorrean, baita Iparraldeko eta Gipuzkoako hainbat herritatik etorritakoa ere. "Gainera, Arantxa Ansa eta Itziar Jauregi etorri ziren txalaparta jotzera; haien presentzia oso garrantzitsua izan zen" nabarmendu du Jabierrek.

Lehen aipatu bezala, proiektua aurrea eramateko ezinbestekoak izan dira Lekunberriko eta Larraungo udalen nahiz Ondare Kultur Taldearen laguntza. "Lan handia aurreztu ziguten" azpimarratu dute txalapartariak.

Amaitzeko, hiru antolatzaileek ekimenaren kolektibotasuna nabarmendu dute, "ederra izan zen, etorri ziren guztiek lagundu ziguten. Inaugurazio kolektiboa izan zen eta denei gure eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiegu".



Mikel Ijurko eta Imanol Ugarte txalaparta muntatzen




CONSTRUCCIONES



ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



Construcciones
Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri

616 457 540

construccionesganarbe@gmail.com

636 827 846

EUROPAKO ASTEA NAFARROAN

MAIATZAK 5-11

EUROPA SOR DADIIA KANTOI GUZTIETAN!

Proposatu zure ekitaldia
europedirectnavarra.eu/semanadeeeuropa
#EuropeDirectNA #NavarreInEurope



EUROPE DIRECT
Navarra · Nafarroa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



NAVARRA ‡ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



ARAXES ESKOLAN JANARI BILKETA EGIN DUTE

Martxoaren amaieran, Araxes Ikas Komunitateak Lesboseko errefuxiatuei laguntzeko janari bilketa antolatu zuen. Bilketa arrakastatsua izan zen. Zaporeak elkartarekin elkarlanean, hainbat produktu bildu zituzten: arroza, pasta, dilistak, babarrunak, kontserbak, esnea eta higiene produktuak, besteak beste.

Ekimen solidario honen antolatzaileek, herritarren konpromisoa azpimarratu eta eskertu dute.



BETELUKO ERREPIDEAN GORAGUNE BERRIAK JARRI DITUZTE

Beteluko errepidean abiadura handiz igarotzen ziren ibilgailuen joan-etorria orekatzeko, sei *Lomo de asno* eraiki dituzte. Breazko goragune hauek 60 zentrimetroko altuera eta 4 metroko zabalera dute. Horrez gain, herriko hainbat sarbide berritu dituzte.

Proiektua Beteluko Udalak finantzatu du, eta guztira 35.000 euro inguruko inbertsioa egin da.

MENDIALDEKO PARROKIEN APAIZEK WEB ORRI BERRIA SORTU DUTE

47 Herri Nafarroako ipar-mendebaldeko hamar udalerrietako 47 parrokiek osatzen duten web orrialde berria da. Digitalizazio munduan bete betean murgildu dira. Bertan, herrietako ospakizun erlijiosoen inguruko informazioa erraz eskuratu daiteke. Gainera, webgune berriak hainbat eduki eskaintzen ditu: ospakizunen egutegia, meza bereziak, eguneroko ordutegiak, herri bakoitzaren xehetasunak, apaizei buruzko informazioa...

Tresna baliagarria bilakatu da herritar fededunentzat, parrokiaren jarduerak gertutik jarraitzeko aukera eskaintzen baitu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu <https://47herri.eus> webgunea.





TTUTTURRE KIROL ELKARTEAK APLIKAZIO BERRIA DU

Gure ibarreko mendizaleen elkarteak, *Nafarmendi Licencia* izeneko aplikazio berria martxan jarri du.

Tresna berri honen bidez, federatuen kudeaketa eta informazio berria lortzea errazagoa izanen da. Hala ere, *Licencia deportiva* izeneko plataforma oraindik indarrean dago, baina berrira pasatzeko eskatu dute.

Aplikazio eguneratua eskuratu nahi baduzu, sartu hurrengo loturan:

-Android: <https://labur.eus/uydcc3vw>

-IOS: <https://labur.eus/oajye2xm>



LARRAUNGO MEMORIAK BIZIRIK DIRAU

Apirilaren hasieran *Larraun 12* bizitza *historiatan* lana aurkeztu zen Gabari Gune Irekian.

Labrit Ondarea, Eusko Kultur Fundazioa eta Euskal Kultur Erakundea izan dira proiektuaren gidari. Herritarren parte-hartze aktiboa ezinbestekoa izan da azken urteotan egin den bilketa prozesuan. Ekitaldia jendez gainezka egon zen, eta oso hunkigarria izan zen iraganekeo bizimodua ezagutzea.

Hemendik aurrera, urtean hiru elkarrizketa egitea adostu da, herritarren ahozko ondarea biltzen eta xehetasunez aztertzen jarraitzeko. Horregatik, ibarrean hezi den pertsona egokiren bat ezagutzen baduzu, bidali zure proposamena info@larraun.eus helbidera edo deitu **948 504 207** telefono zenbakira.

'MARTILLO TXIKI' EMANALDIA ARRAKASTATSUA IZAN ZEN

Apirilaren 9tik 11ra, Martillo Txiki Perkusio Eskolaren ekitaldi berezia ospatu zen Gabari Gune Irekian. Ekitaldia Igor de Castro Martiarenak antolatu zuen, urteetako esperientzia bizkarrean daraman perkusio irakasleak.

Hiru eguneko egitarau honetan, ikasleen lanaren emaitza zuzenean entzuteko aukera paregabea izan zuten bertaratu ziren herritarrek.

Martillo Txiki sortu zenetik, musikarekiko grina piztu eta gazteen sormena garatzeko topagune bihurtu da.



“Egungo energia kontsumoarekin jarraitzea ez da batere jasangarria planetarentzat”

Lorea Eraso Cestauk Energia Berriztagarrien Ingeniaritza ikasi zuen Eibarko Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun Bilboko unibertsitatean ari da Energia berriztagarrien integrazioa sistema elektrikoan izeneko masterra egiten. Energia munduarekiko bere interesa txikitan sortu zen, aitzak egiten zituen elektrizitate instalazio lanak ikusita. Gaur egun, eoliko txiki eta fotovoltaikeen instalazio hibrido bat diseinatu eta instalatu dute elkarlanean.

Nolatan erabaki zenuen Energia Berriztagarrien Ingeniaritza ikastea?

Nire ustez, aitarengandik heldu zait energia munduan murgiltzeko gogo. Bera, Aritz ibarreko argiketaria da, eta oroitzen naiz txikia nintzela, elkarrekin joaten ginela obra batetik bestera. Bertako lanak ikustean piztu zitzaidan curiositate berezi hau.

Geroago, batxilergoan nengoela, ez neukan batere argi zer ikasi nahi nuen. Banekien zenbakiekin zerikusia zuen zerbait izanzen zela, zientzietatik joan nahi nuela, eta horregatik egin nuen batxilergo teknologikoa. Agian ez da nesken artean ohikoena; izan ere, nire klasean bi neska besterik ez ginen.

Batxilergoa amaitu nuenean, selektibitatea eta matrikulak egiteko unea iritsi zen. Noski, matrikulak nota jakin gabe egiten dira, eta oraindik ez nekien zer ikasi nahi nuen. Selektibitatean ateratako notaren arabera aukeraketa egitea zen nire ideia. Ez nekien zer ikasi. Matematika, Energia Berriztagarrien Ingeniaritza edo Ingeniaritza Informatikoa? Azkenean, gertutasunagatik, Energia Berriztagarrien Ingeniaritza egitea erabaki nuen eta ongi joan zen.

“Aitarengandik heldu zitzaidan energia munduan murgiltzeko gogoa”



Lorea Eraso Cestau
Argazkia: Lorea Eraso Cestau

Nolakoa da genero berdintasuna zientzietako sektorean?

Lehen aipatu dudana bezala, karrera hau Eibarren egiten da; ez da Donostiako edo Bilboko unibertsitatea bezain handia. Karrerara iritsi nintzenean, iruditu zitzaidan institutua bezalakoa zela, nahiko familiarra, eta bai, ikusten zen neska gutxiago ginela. Nire klasean gutxiago ginen, bai, baina nahiko parekatuak. Nire ustez, ingeniaritzaren sektorean geroz eta neska gehiago gaude, baina oraindik gutxi gara.

Albaitaritza

baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343





Lorea mendiko eoliko baten alboan
Argazkia: Lorea Eraso Cestau

Proiektu eoliko bat gauzatu duzu...

Bai. Ingeniaritzako graduan, hirugarren mailan, praktikak egiteko aukera dago, eta udaran, Iruñeko enpresa batean hasi nintzen. Nire aita argiketaria denez, bezero batek, Tolosako eta Atalluko mugan dagoen etxe batean, instalazio bat muntatzeko eskatu zion. Han, sarera konektatzea oso zaila da, leku txarrean dago. Iberdrolarekin baimenen kudeaketa ugari egin behar ziren, eta bezeroari instalazio isolatu bat egitea interesatzen zitzaion. Beraz, eguzki-plakei buruzko informazioa eskatu zigun.

Nik nire aitari aurretik komentatu nion unibertsitatara etorri zitzaizkigula eoliko txikiekin lanean ari ziren enpresa batzuk, eta nire aitak esan zidan plaka batzuen bidez eoliko txiki bat jartzea ere ideia ona izango litzatekeela. Nik diseinua egin nuen, eta 5 kilovatio inguruko turbina txiki bat jarri genuen, eoliko txiki bat, lau plaka inguru eta bateria batzuk. Nire aitak aukera hori proposatu eta bezeroa animatu zen. Azkenean instalazio hibridoa jarri genuen.

"Ingeniaritzaren sektorean geroz eta neska gehiago gaudede, baina oraindik gutxi gara"

Eolikoan alorrean, zein teknologia berritzaile ikusten dituzu gaur egun?

Nik uste oso entzuna izaten ari dela itsas energia, onshore (lur gainekoa)

IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainenetan

eta offshore (itsaso barrukoa) deitzen zaiena. Eta egia esan, eolikoek izan dezaketen inpaktu naturalarengatik (pisua, soina...) eta eraikitzeke geroz eta lur gutxiago egoteagatik, jendea ez du hainbeste erakartzen parke eoliko bat eraikitzeak. Azkenean, inork ez du energia zentral bat etxe ondoan nahi. Horregatik, kokapen egokiagoa bilatuz, egitura itsasoaren gainean eraikitzea aukera bat da. Bertan, potentzia handia dago; itsasoko haizea oso indartsua da. Baina hor arazoa ura, gatza, olatuen indarra, egitura, etab. dira.

Nola aplikatzen duzu masterrean ikasitakoa?

Masterrak, ikasketak eta praktikak konbinatzeko aukera eskaintzen du. Klaseak arratsaldeetan dira, beraz, goizez praktikak egiten ari naiz Bilboko enpresa batean. Bertan, tentsio altuko babesa lantzen da, eta interesgarria iruditzen zitzaidanez, praktika hauek Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiteko baliatzen ari naiz. Software bat erabiliz parke eoliko baten jokaera diseinatzen ari naiz, parke eoliko batek sareratuko lukeen energia grafikatzeko, eta energia hori enpresen babes sistemetan injeztatzean zer gertatuko litzatekeen simulatzen. Proiektu oso desberdina da, aurretik egindako lanekin ez du zerikusirik, eta ideia handirik izan gabe murgildu nintzen, baina oraingoz gus-tura ari naiz, asko ikasten.



Lur kanpoko parke eoliko bat

Energia berriztagarriak, planetaren klimarekin lagungarrik direla uste duzu?

Energia berriztagarriak, auto elektrikoak bezala, behin-behineko soluzioak bakarrik ditugu oraingoz, baina garen handi eta mesedegarria izango dutela aurreikusten da. Bai, oso ongi dago: energia modu garbian lortzen duzu, instalazioa eginda dagoenean ez duzu emisiorik sortzen, ez duzu inolako gas kutsakorrik isurtzen... Azkenean, eguzkia, ura eta haizea baliatuz lortzen duzu energia hori, eta ez duzu produkzio horretan ikatza, egurra edo gasa gastatzen.

Baina noski, puntu horretara iristerako,

“Energia berriztagarriak, auto elektrikoak bezala, behin-behineko soluzioak bakarrik ditugu oraingoz”

aurreko pausoak (instalazio hori eraikitzeke behar izan den materiala, garraioan sortutako kutsadura...) kontuan hartu behar dira, eta iruditzen zait hori ez dela hainbeste aipatzen energia berriztagarriei buruz hitz egiten denean. Ez da ematen duena bezain polita.

Une honetan ez da hainbeste nabarmentzen, baina etorkizunean, litekeena da instalazio eta material



Haize errota txiki baten eraikuntza
Argazkia: Lorea Eraso Cestau



Eraso grua baten gainean
Argazkia: Lorea Eraso Cestau

horiek guztiek birziklatzeko arazoak izatea. Azkenean, material asko berriak dira eta bigarren bizitza bat ematea oso zaila da edo ezinezkoa izan daiteke kasu batzuetan. Ezagunenak agian baterien edo airesorgailuen palen arazoak dira. Orain parke askotan pala hauek aldatzeko garaia da, beren bizitza erabilgarria 20-30 urte ingurukoa izaten delako. Beraz, energia berriztagarriak ingurumenarekin lagunkoiak dira, baina horretarako beharrezko prozesua eta ondorengo kudeaketa nahiko kutsakorak dira.

Nola ikusten duzu energia berriztagarrien etorkizuna?

“Gaur egun dagoen teknologiarekin, energia berriztagarriak aukera bakarrak dira”

Nik uste dut energia berriztagarriek aurrera jarraituko dutela, ez bakarrik momentuz ez dagoelako beste soluziorik, baizik eta onuragarriak direlako. Erregai fosilen erabilera murriztu behar dugu, eta horretarako

alternatiba bat beharrezkoa da. Gaur egun dagoen teknologiarekin, energia berriztagarriak aukera bakarrak dira. Uste dut denbora luzez erabiliko direla.

"Erregai fosilen erabilera murriztu behar dugu"

Beraz, noski, etorkizunean presentzia handiagoa izango dute. Geroz eta energia gehiago kontsumitzen dugu, eta hau nonbaitetik sortu behar da. Erregai fosilen erabilerak ondorio kaltegarriak ditu, bai ingurumenarentzat, animalientzat, zein gure osasunarentzat. Orduan, gaur egun dauden teknologiek ematen duten soluzio ez-kaltegarriena berriztagarrien adarra da. Egia da energia nuklearra ere hor dagoela, gas isuririk gabea, baina uranioa ere noizbait bukatuko da, petrolio bezala, eta zeinek nahi du bere etxe ondoan material nuklearra? Amaitzeko, aintzat hartu beharreko beste kontu bat da egungo energia kontsumoarekin jarraitzea planetarentzat ez dela batere jasangarria. Hau murriztea ezinbestekoa da, eta hori norberak bere egunerokoan ekintza txikiekin lor dezake.

"Geroz eta energia gehiago kontsumitzen dugu, eta hau nonbaitetik sortu behar da"



Petrolio plataforma

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasa

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserio Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo Otamendi Artola

Giro ederra Santa Engraziako Erromerian

Apirilaren 16an, Santa Engrazia eguna izan zen. Aurretik, Uitziko basilizako meza bezperan eman zuten. Beranduago, apirilaren 27an, erromeria nagusia ospatu zuten. Inaxio Azkoaga apaiza bi egunetako mezen gidari izan zen, eta Uitziko herritarren parte-hartzea eta laguntza azpimarratu zituen. Ohiturari jarraituz, batzuk oinez eta beste batzuk autotz, Uitziko ermitaraino igo ziren. Eguraldi goibela izan arren, giro ederra nagusitu zen. Uitz, Gorriti eta Leitza inguruko 70 lagun inguru elkartu ziren. Hurrengo erromeria Arruizko Santa Luzia basilizan ospatuko da, maiatzaren 11n, 12:30ean.



Lehenengo erromerian egin zen hamaiketakoa.
Argazkia: Joxe Mari Zabaleta



Herritarak basiliza barruan.
Argazkia: Joxe Mari Zabaleta



Kinto Eguneako bazkaria.
Argazkia: Olaia Uharte

180 Lagun elkartu ziren Lekunberriko Kinto Egunean

Urtetik urtera, gero eta gazte gehiago elkartzen dira Kinto Egunean. Apirilaren 26an, bazkari autogestionatua antolatu eta 180 pertsona inguru elkartu ziren Lekunberriko frontoian. Bingoan jokatu ostean, GoTX elektrotxarangarekin batera giro paregabe jarraitu zuten. Iluntzean, DJ Izzei & Eneko aritu ziren trinketeen musika jartzen eta gaua alaitzen. Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, eguna ederki aprobetxatu zuten. Adin eta belaunaldi desberdinetako kintadak elkarrekin aritu ziren, egun berezi hura festa giroan ospatzen.

'Mendialdeko Azoka Ibiltaria' Betelun hasi da

2025eko Mendialdeko Azoka Ibiltaria martxan da, eta lehen hitzordua apirilaren 13an, Betelun ospatu zen. Eguna 22 artisautza eta janari postuen irekierarekin hasi zen, eta dantzari txiki, trikitilari eta fanfarreen eskutik musika animazioarekin amaitu zuten. Ekimenak bertako ekoizpen jasagarria eta kontsumo arduratsua sustatu nahi ditu. Hurrengo hitzordua: maiatzaren 18an Gorritin eta ekainaren 1ean Goizuetan izanen dira.



Dantzari txikiak, Betelun.
Argazkiak: Plazaola Partzuergoa.



Artisautza produktuak.

Araxes Ikastetxearen 50. urteurrena egun berezia izan zen

Apirilaren 12an egun osoko festa bat antolatu zuen Araxes eskolako hezkuntza komunitateak. Iragana, oraina eta etorkizuna batzen zituen festa izan zen. Egunean zehar hainbat ekintza gauzatu ziren: fanfarrea, kantu jira, herri kirolak, umeentzako jolasak, bingoa, zozketa, musika, bazkaria eta sorpresak. Antolatzaileek, jende guztiarentzat antolatutako egun berezia izan zela adierazi zuten.



Araxes Ikastetxearen 50. urteurrenean haurrak jostatzen.
Argazkiak: Araxes Zuzendaritza Batzordea



Kantu jira.



Haurrei aurpegia margotzen.



Bazkaria frontoian.



Irakasleak eta ikasleak sokatiran.



Fanfarrea abestiak jotzen.

'Frankenstein agurgarria' disko-liburua aurkeztu zuten Gabari Gune Irekian

Aurkezpen musikatuan, munstroez eta literaturaz, beldurraz eta kulpaz, iraganaz eta etorkizunaz aritu zen Ana Galarraga, Pettiren kantuen laguntzarekin. Ondoren, solasaldirako tarte ere izan zuten. Nafarroako Mendialdeko Euskara Zerbitzuak Literatura Geraldien baitan antolatu zuen saioa, eta Larraungo irakurle taldeko hainbat lagun bertaratu ziren. Ordubeteko emanaldiaren "Nor da munstroa" galdera luzatu zieten ikusleei.



Petti abesten eta gitarra jotzen.



Gabari Gune Irekian 'Frankenstein agurgarria' emanaldia.



'Bizitza musikal bat da' ikuskizuna Lekunberriko kiroldegian.

'Bizitza musikal bat da'

Martxoaren 29an Aralar Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek eskainitako kontzertua arrakastatsua izan zen. Lekunberriko kiroldegian ehundaka lagun elkartu ziren eta eskualde osoko jendea elkartu zen emanaldiarekin gozatzera.



Esti Curiel, Lorena Arangoa eta abesbatza.

'Zubiak hartzera', euskaratik, euskaraz eta euskararendako

Euskaraldiaren alde Nafarroako zubiak hartzeko ekimena antolatu du Sorionekuak. Larraunen Arruizko Beltzuntze zubian elkartzeko proposamena maiatzaren 10ean izanen da, eguerdiko 12:00etan.

Etorkizunera begirako herritarren konpromisoa erakutsi nahi duen ekimen hau, euskaratik, euskaraz eta euskararendako sortu da. Gorde hitzordua eta animatu!




'Sorionekuak', euskararen aldeko plataforma berria.

Manex Astigarraga kontu kontari

Martxoaren amaieran Manex Astigarra- ga debarraren eskutik, herritarrek barre egiteko gonbitea izan zuten umorezko ikuskizun honekin. Printzan gauzatuta- ko emanaldia bizia izateaz gain, diberti- garria, umoretsua eta zorrotza izan zela adierazi zuten ikusleek.



Manex Astigarragaren emanaldia Printzan.
Argazkia: Aitor Irastortza.



Nigrum Lumen
Matatech VI. edizioan.

Giro ederrean joan zen 'Matatech VI.' edizioa

Apirilaren 5ean, Lekunberriko Mataderoan Matatech VI. techno musika festa ospatu zu- ten. Urtero bezala, bertako gazteek eraikuntza hobetu eta berritzeko laguntza ekonomikoak lortzeko helburuarekin antolatu zuten. Dan- tzan hasi baino lehen, arratsaldeko 17:00ak aldera Mus Txapelketa jokatu zuten, eta ilun- tzean, gaueko musikari gonbidatuak: Nigrum Lumen, Aimar Oskariz, Eddy Trxxx eta DJ Zaze izan ziren. Gau itzela igaro zuten technoza- leek, eguzkia atera arte dantzan.

Agur esan diete herritarrek moja klaratarrei

Apirilaren 22an, Lekunberriko herritarrek ber- tako komentuan bizi ziren ahizpa klaratarrak agurtu zituzten. 130 urtez eskainitako zerbi- tzuen ostean, zazpi ahizpek komentua utzi eta beste komunitate batzuetara joan dira, besteak beste: Karmen eta Maria Angeles, Tu- terara (Nafarroa), Belen eta Lourdes, Erriberri- ra (Nafarroa), Paloma eta Nati, Agurainera (Ara- ba) eta Margarita, Naiarara (Nafarroa).

Agurrean, Lekunberriko eta inguruko herri- tar ugari elkartu ziren mojak agurtzera. Eliza jendez gainezka zegoela, eukaristia berezia ospatu zuten, eta komunitate desberdinetako hainbat ahizpa elkartu ziren.

Elkarbizitzari amaiera eman ondoren, Lekun- berriko herritarrek besarkada kolektibo baten bidez, klaratarren fedea, zerbitzua eta komu- nitatearekiko konpromisoa eskertu zituzten.



Lekunberriko komentua.
Argazkia: Nafarroako Eliza.



Klaratarrek ongi etorria egiten
Aralarko S.Migeli.
Argazkia: Nafarroako Eliza.

Lagun berri bat dut: Chatgepete deitzen da

"Irakasleak hausnarketa bat egiteko eska- tu digu. Bah, Chat GPTri eskatuko diot eta listo".

"Zuk diozuna ez dago ongi. Nik Chat GPTre- kin egin dut eta bestelakoa dio!"

"Badaude larekin egindako testuak eta la- nak gizatiartzen dituzten aplikazioak, eh?"

Eta hauen gisako esaldi zerrenda luuuuuuze batekin bete nezake zutabe hau.

Bigarren Hezkuntzatik aurrerako zenbat gazteri (eta ez horren gazteri) entzun ote diedan halakorik! Niri ezkerreko begiak dar-dar egiten dit hauek entzuten ditudan aldiro. Zalantzarik ez: sekulako erreminta izan daiteke zintzo eta modu kritikoa er- abiliz gero. Baina, hortxe gakoa: zer da modu kritikoa erabiltzea? Lortu al daiteke hori inork erakusten ez badie / badigu?

Erabilgarria al da, bestetik, izan ariketa soi- lak edo hausnarketak etxean egiteko bidal- tzea jakinda askok (baina askok!) Chatgepe- te laguntzari eskatuko diotela haien ordez egiteko?

Horrekin batera: zenbaterik egin ote dizkiote galderak Chatgepeteari norberaren begira- da eraikitzen laguntzeko! Informazioa bila- tzea, konparatzea, egiaztatzea... ez baita bi segundotan egiten. Iak, baina, halaxe egin lezake. Zer preziotan, ordea!

Buffff a ze meloia. Zeinen azkar doazen gauza batzuk, zeinen motel besteak.

Aizu...

Pentsatzen jarrita, pentsamoldea, ideolo- gia, iritziak... guk gerorrek garatzeak maki- na bat lan duela ikusita, zutabe hau ere eska niezaioke Chatgepete-ri, ala?

Oraintxe galdetuko diot. Euskara txuku- nean egiteko gai izanen denik ez dut uste, baina tira...



“Denok gara garaile, areto-futbol inklusiboan jokatzean”

Lagun Artea Kirol Elkarteak 2024an areto-futbol talde inklusibo bat sortu zuen, eta horrek, herriko eta inguruetako inklusioaren arloan, urrats handia eman zuen. Taldearen sorrera Nafarroako Futbol Federazioak sustatu zuen, eta “Nire gaitasuna kirola ere bada” futbol ligarekin lotuta dago. Ligak ez du bereizketarik egiten, eta kirolariak maila berdinetan lehiatzen dira, gaitasun fisiko edo intelektualaren arabera. Taldea hamaika jokalarirekin hasi zen, baina ateak zabalik jarraitzen dute jokalaria zaleentzako.

Lagun Artea helburu inklusibo baten alde

Proiektua guztiz inklusiboa da, eta parte-hartzaile guztiek beren gaitasun fisikoak erakusteko aukera dute. Bereziki, Aitor Goikoetxea, Lagun Artea Kirol Elkarteako futbol koordinatzailea aurretik inklusioaren arloan aritua zenez, Kirolaren Lege Berria sortu zenean eta Nafarroako Futbol Federazioak inklusioa eta lehiaketa sustatu nahi zituela konturatzean, Lakuntzako Lagun Artea areto-futboleko taldea sortzeko proiektua garatu zuen.

Lagun Arteako zuzendaritza batzordearen baiezkoa jaso ostean, Goikoetxeak bilera bat antolatu zuen Lakuntzako udaletxean. Bertara, honako eragileak gonbidatu zituen: Mila Kolorre, ASPACE, Tasubinsa, Biak Bat, Nafarroako Futbol Federazioa eta Lakuntza-

ko Udala.

Mahai gainean proiektua aurkeztu ondoren, Lagun Artean areto-futboleko inklusio taldea sortzea erabaki zen. Gainera, bertaratu ziren eragileek haien babesa eskaini zioten proiektuari, eta kirolarien parte-hartzea bultzatzen lagundu zuten.

“Areto-futboleko jokatzeara eta Lakuntzan kirola egiteko aukera izatea ederra da”

“Gol bat sartzen dudan bakoitzean zoriontsu sentitzen naiz”

Miguel Angel Escamendi



Entrenamenduetako une bat.

Taldeak eginkizun argiak izan zituen hasieratik. Futbolaren bidez, gizartearen aniztasuna eta inklusioa bultzatu nahi ziren. Kirolariak Sakana frontoian entrenatzen dute, eta bertan, elkarrekin ariketa eta jarduera fisikoak egiteko aukera dute. “Inklusioaren eta elkarlaren ideia oinarritzat hartuz, orain arteko esperientziak oso positiboak izan dira” adierazi du Goikoetxeak.

Taldearen sorrera eta lehen urratsak pasa den urteko irailean izan ziren. Hala ere, ofizialki, liga aurtengo urtarilean hasi zen. Horretarako, prestakuntza egonkorra eta antolatua izan da. Helburu nagusietako bat, Nafarroako Futbol Federazioak antolatutako “Nire gaitasuna kirola ere bada” futbol ligan



Unai Otermin Satrustegui, Miguel Angel Escamendi Iriarte eta Aitor Goikoetxea Iriarte.

lehiatzea da. Ligak inklusioaren balioak jorratzen ditu, eta taldeen artean ez dago bereizketarik, jokalaria maila berdinetan lehiatzen dira.

Goikoetxeak taldearen ezaugarri nagusia azaldu du, “taldekideen artean sortzen den harremana ikusgarria da; giro zoragarria sortzen dugu elkarrekin”. Miguel, Beteluko futbolariak eta Lagun Artea taldeko aurrelariak, bere ikuspuntua eskaini du, “taldeko giroa asko gustatzen zait. areto-futboleko jokatzeara eta Lakuntzan kirola egiteko aukera izatea ederra da”.

Ikuspuntu desberdinek sortzen dute taldea

Taldea astean behin entrenatzen da, eta entrenamenduak Sakana frontoian egiten dira. Horrek aukera ematen die taldekideei estuki elkarrekin aritzeko eta giroan murgiltzeko.

“Entrenatzaile izateak asko ematen dit”

Unai Otermin

“Taldeen osasuna eta prestakuntza fisikoa lehenesten da sentsibiltate fisikoa hobetzeko. Jokalari bakoitzak taldearen egiturarekin bat egiten du,



Miguel Lagun Artea, areto-futbol inklusiboa ospatzen.



Lagun Artea taldea jokoan.

lankidetzaz funtsezko elementua da. Amaitzeko, benetako partidua simulatzeko eta egoerak praktikatzeko, taldearen erreakzioak aztertzen dira, adierazi du entrenatzaileak. "Entrenatzaile izateak asko ematen dit. Bertan sortzen dugun giroa oso onuragarria da eta taldekideen elkarlana nabarmen da" jarraitu du entrenatzaileak. "Gure taldean, ohikoa ez den giro positiboa sortzen dugu denon artean" amaitu du.

Goikoetxeak taldekideen harremanak azpimarratu ditu, "Proiektu honetan, parte hartzaile guztiak elkarlanean aritzen gara. Gainera, taldekideak elkarren artean babesten dira, eta horrek, taldea sendotzen du. Partiduak amaitzeko aukera izatea, irabaztea da". Miguel, taldeko jokalariek, futbolaren aldetik bizitako une onenetako batzuk

aipatu ditu, "Lagun Arteko lehenengo partidua jokatu genuenean, lehenengo gola nik sartu nuen. Gol bat sartzen dudana aldiro zoriontsu sentitzen naiz eta besoak altxatuz ospatzen dut".

Etorkizunerako ideiak sendoak dira

Gaur egun Lagun Artea, Nafarroako areto futbol inklusioaren arloan aitzindaria da, eta etorkizunari begira, hainbat erronka eta helburu finkatu dira. "Hurrengo urtean nesken futbol talde bat sortzeko asmoa dugu, eta baita areto-futbol inklusiboko taldearekin jarraitzea ere" aipatu du Goikoetxeak. Aipagarria ere da denboraldi hasieran aurkezpen festa antolatzen dela. Elkarrekin ospatzea eta inguruko jendea proiektura gerturatzea dira helburu. Aurkezpenaren egun horretan, familiariek, lagunek eta zaleek bat egiten dute. Oterminek inklusioaren balio garrantzitsua nabarmendu du, "Lagun Arteko Jokalariak etxetik ekartzen dute zoriontasuna eta kirolean praktikatzeko dute", "harreman sentikorak dituzte, gizartearen beharrezkoa litzatekeena haiek eskaintzen dute" adierazi du Goi-

koetxeak.

Talde honen helburuetako bat, ingurukoekin harreman gehiago sortzea eta inklusioa indartzea dira. "Partiduak amaitzeko etxera pozez beteta joaten naiz. Pozik, elkarrekin eta inklusioa bultzatuz jarraitzea dira gure benetako helburuak", azpimarratu du Goikoetxeak. Taldearen lidergoa eta sormenak aurrera begira aukera berriak sortuko ditu, eta Lagun Arteak, areto-futbolaren bidez, gizartearen aniztasuna sustatzen jarraituko du.

Taldearen zuzendaritzaren eta koordinatzaileen garrantzia ere nabarmendu du Miguelek, "Lagun Arteko jokalariek pozik gaude, eta niretzat garrantzitsua da Miren Iriarte Lizarragaren laguntza, bere ardura benetan zoriontsu egiten nau".

"Pozik, elkarrekin eta inklusioa bultzatuz jarraitzea dira gure benetako helburuak"

Aitor Goikoetxea



Lagun Artea areto-futbol inklusibo taldea entrenatzeko prest.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

'Erronka Hirukoitza' herritarren parte hartzearen alde

Aurtengo udaberriarekin batera, Erronka Hirukoitza izeneko ekimen berezia abiarazi du gure eskualdeko Kirol Mankomunitateak.

Araitz-Betelu, Lekunberri eta Leitzako krosak elkarrekin dira tokiko parte-hartzea sustatzeko, kirolaren balioa azpimarratzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko. Gainera, hiru lasterketetan parte hartu duten guztien artean sari mordoak baten zozketa antolatu da. Guztira, 17 korrikalari ausartek osatu dute lehen edizio berritzaile hau.

Erronkaren antolatzaileek adierazi dutenez, ekimena aurrera eramateko ezinbestekoa izan da tokiko merkatarien babesa. Etorkizunean, eragile gehiago animatzea gustatuko litzaieke, ekimena handitu eta herri-giroa indartzen jarraitzeko.

Aurtengoa hasiera baino ez da izan. Hemendik aurrera, eta bereziki datorren urteari begira, herritarren parte-hartzea sustatzen jarraitzea espero da.



Erronka Hirukoitzaren sari banaketa Leitzako karrapean.
Argazkia: Kirolmank



'I. Harrilatx Topaketa'
Baraibarreko boulder aretoan.
Argazkia: Oihan Igoa



Argazkia: Oihan Igoa

'I. Harrilatx Topaketa' Baraibarreko boulder aretoan

Martxoaren 26an I. Harrilatx Topaketa gauzatu zuten Baraibarreko boulder aretoan. Hainbat eskalatzaile bildu ziren, eta elkarrekin aurretik, bertako bazkideek aretoa eguneratu zuten. Pieza berriak paretan jarritaz gain, route setting berriak diseinatu zituzten, eskalatzaile trebeentzat bide berriak prestatuz eta eraikiz.

Harrilatzeko bazkide izan nahi baduzu, idatzi harrilatx.eskalada@gmail.com helbidera. Horrela, aretoan sartzeko, giltza eskuratzeko, lagunak bertara gonbidatzeko eta materiala erabiltzeko aukera izanen duzu.

Lorea Zuletek hirugarren postua lortu du Chipionako IV. Discgolf Txapelketan

Chipionako IV. Txapelketan, Lekunberri KE Discgolfeko Lorea Zuletek hirugarren postua lortu zuen emakumeen kategorian. Gure ibarreko kirolariak, azken hiru jokaldiren faltan, 238 puntu eskuratu zituen, eta horrek, Espainiako Kopako sailkapenaren goialdean indartu du bere egoera. Sanna Ahlgrén (Suedia) izan zen irabazlea 183 puntu lortuta, eta bigarren postuan Leah Bizier (Kanada) sailkatu zen, 212 puntu lortuta.



Lorea Zulet Chipionako IV. Discgolf Txapelketan.
Argazkia: Lekunberri K.E.

Araxes, Nafarroako Kirol Jokoetako Txapelkun

Apirilaren 6an, Lekunberrin gauzatutako laugarren kirol jardunaldi berezia izan zen. Gure eskualdeko Araxes Herri Kirol Taldeak antolatutako egitasmoa primeran joan zen, eta bertan egon ziren herritarren laguntza ezinbestekoa izan zela adierazi zuten antolatzaileek.

Kirol arloan, etxean jokatzek indar berezi bat piztu zuen gure kirolarien artean, eta lan bikaina egin zuten, emaitza onuragarriak lortuz.

Kimuek beren txanda nagusitasunez irabazi zuten, eta, denera, emaitza txukuna lortu zuten. Saillkapen orokorrean erdialdean saillatu ziren, aurtengo txapelketa bukatu da txikienez. Haurrek, ordea, aurrekoetan izandako emaitza txarreki buelta eman zieten, eta postu itxurosoa lortu zuten orokorrean. Hauen txapelketako partaidetza ere hemen bukatu da.

Egun bikaina borobiltzeko, kadeteak finalean saillatu ziren, eta apirilaren 13an, Altsasun jokatu zuten. Azkenean, proba konbinatua Araxes taldea izan zen garaile. Gainera, sokatiran ere podiumean amaitu zuten, hirugarren postua lortuta.

Lehia estua espero zen proba konbinatuan, eta hala izan zen. Araxesek lehen txandan parez pare amaitu zuen Basaburuarekin, baina bigarren txandan aurreratzea lortu zuen. Azkenean, Basaburua gogor aritu zen, baina Araxesek lau segundoko aldeari eutsi zion eta txapela eskuratu zuen, 9 minutu eta 46 segundoko denborarekin.

Sokatiran, berriz, ustekabeko emaitza izan zen. Egindako lan bikainari esker, etxeko taldeak hirugarren postua lortu zuen, Andra Mari eta Basaburua taldeen atzetik.



Araxeseko kadeteak,
Nafarroako Kirol Jokoetan.
Argazkia: Unai Ijoko Sardlegi.



Zakuaren proba.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.



Trontzarekin egurra mozten.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.



Kirolariak eskolak biltzen.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.



Nafarroako Herri Kirol Jokoak Lekunberrin.
Argazkia: Behat Barberena.

Musu eta besarkaden esanahia

Ez zen egon gure etxean besarkatzeko eta muxuak emateko ohiturarik, kontrakoa, nahiko giro "hotza" zegoen zentzu horretan. Inguruan ere beste hainbeste, zirudienez ezpainetako muxuak bikoteen kontua ziren bakarrik, besarkadak berriz zerbait larria gertatzen zenean norbaiti ematen zitzaion zerbait... Nerabezaroan Iruñean antzeko jarraitu zuen kontuak, nik gogortasun eta beldur puntu batetik bizi nuen sentsazio emozional hori.

Lekunberriko lagunak agertu ziren orduan, gazteteen garaia, Leitzako parrandak eta aurreneko giro alternatiboak. Bertan, ezpainetan "piko" bat ematea gauza ohikoa zen, laguntasun seinale, besarkadak ere lagun artean ematen genituen, topatzen ginen aldiro, ni asko lasaitzen ninduten, konfiantza ematen zidaten eta pertsona horiekin nire defentsa sistema erlaxatzen zen.

Ordutik, jende batekin mantendu ditut ohitura horiek, beste batzuekin ez, zerbait "mekanikoa", sentipen gabea bada ez da atsegina, nolabaiteko konfiantza bat egoitea beharrezkoa da pertsonen artean, argitasun bat egiten dugun horrek ez duela bestelako esanahi edo sentipenik, gorputzak gorputzekin lasai deskantsatu dezaketenaren mezua.

Argi dago muxu edo besarkada batek emozioak pizten dizkigula, emateko eta jasotzeko gure "babeste sistema" jaitsi behar dugula. Beldur ohikoa dela esango nuke muxu bat eman eta gehiago sentitu daitekeela, auskalo zertan bihurtu daitekeen... Argi dago ere mundu guztiarekin ez dugula sentitzen besarkatzeko edo musukatzeko nahia, gorputzek gordetzen dituztela ere pasatako esperientzia traumatikoen memoriak...

Interesgarria da niretzat gertatzen denaren eta ematen diogun esan nahiaren inguruko behaketa jarraitzea, nerabezaroan egiten hasi nintzen momentutik, nire barne osasuna askoz hobea dela sentitzen dudalako. Kontakturik ez egotetik oheratzera, bitarteko asko daudelako.





Aldaketara egokitzea



Bizitzan zehar aldaketa asko izaten ditugu.

Aldaketa batzuk borondatezkoak dira, hala nola aukeratutako lan-aldaketa bat edo look aldaketa bat; beste batzuk, berriz, bizi-etapen aldaketa gisa onartu behar ditugu. Aldaketa horietako batzuk bat-batekoak dira, hala nola hondamendi naturalen bat gertatzen denean eta bizitzak bat-batean aldatzen zaituenean. Eta beste batzuk, aldiz, pixkanaka-pixkanaka ari dira pasatzen, denboraren igarotzea dela konturatu gabe ere.

Azken batean, edozein aldaketa egiteko, aldaketara egokitu behar dugu. Eta nola definituko genuke aldaketara egokitzea? Honela egin dezakegu: **pertsona edo erakunde batek egoera edo ingurune berrie-**

tara egokitzeko duen gaitasuna, dela bere portaerak aldatuz, dela estrategia berriak hartuz.

Alde horretatik, txinatar edo japoniar kultura batzuen eraginak ere gauzak ikusteko modua aldatu du. Zehazki, Wu Wei printzipio filosofikoak, taoismoaren jatorrikoak, "ekintzarik ezaren" ideia defendatzen du, gauzak ez behartzeko eta egoerak berez jariatzen eta eboluzionatzen ez uzteko. Hortik sortu zen Bruce Leeren "Be water my friend" esaldi ospetsua, non urak bere ontzira egokitzeko duen gaitasuna nabarmentzen den. Hori guztia bat dator aldaketara egokitzeko ideiarekin, eta malgua izatearen eta zirkunstantzietara egokitzearen garrantzia nabarmentzen da, horiek kontrolatzen saiatu beharrean.

Pertsona bakoitzak modu desberdinean hauteman ditzake aldaketak, baita horien aurrean modu desberdinean erreakzionatu ere. Prozesu horretan, gure garuneko 3 eremu handik hartzen dute parte.

► **Kognitiboa:** gure buruak aldaketak nola prozesatzen eta egokitzen dituen definitzen du. Egokigarritasun kognitiboa pentsamendu sortzaileari, arazoak konpontzeari edo egoera berri edo aldakorretan erabakiak hartzeko gaitasunari erreferentzia egiten dio.

► **Emozionala:** moldaezintasun emozionalak esan nahi du gure emozioak nola maneiatzen ditugun aldaketen aurrean, eta nola egokitzen garen emozionalki egoera berrietara edo aldakorretara. Horrek lotura zuzena du gure adimen emozionalarekin eta estresa, frustrazioa eta ziurgabetasuna kudeatzeko dugun gaitasunarekin.

► **Esperientziala:** esperientzia-moldagarritasuna iraganeko gure esperientziek egoera berrietara egokitzeko gaitasunean duten eraginean oinarritzen da. Gure aurreko esperientziek, onak zein txarrak, eragina izan dezakete aldaketa kudeatzeko dugun gaitasunean, eta erronka berriei aurre egiteko tresnak eta estrategiak eskaintzen dizkigute.

Gure inguruko guztia teknologia berrien, ideologien, klima-aldaketaren eta belaunaldi ezberdinen arteko bizikidetzaren artean erritmo bizian aldatzen den mundua kontuan hartuta, trebetasun hori garatzea ezinbestekoa izango da, honako arrazoi hauengatik:

Aldaketarako moldagarritasuna giltzarri bihurtzen da arrazoi askorengatik:

- ▶ **Biziraupena:** Darwinen eboluzioaren teoriak erakutsi zigun bizirik dirauten espezieak ez direla indartsuenak, ezta azkarrenak ere, aldaketara hobekien egokitzen direnak baizik.
- ▶ **Hazkundera:** aldaketei mehatxu edo aukera gisa aurre egin dakeke. Bigarren aukera aukeratzuz gero, ez da soilik haiengandik bizirautea lortzen, baizik eta modu arin eta ireki batean bizirauteko gai bagara, haiengandik ikas dezakegu, hazteko eta planteatu ere egin ez genituen bide berriak aurkitzeko.
- ▶ **Ikaskuntza:** aldaketak jarrera positiboarekin eta aukera gisa hartzean, trebetasun berriak ikasten ditugu eta esperientzia berriak hartzen ditugu. Horrek eboluzionatzeko aukera ematen digu, bai maila pertsonalean, bai profesionalean, eta etorkizuneko aldaketa edo erronketarako prestatzen gaitu. Horrek, era berean, aldaketara egokitzeko gaitasuna hobetzen du.
- ▶ **Erresilientzia:** aldaketetara egokitzen ikasteak erresilientzia hori garatzen laguntzen digu, aldaketa-aldietan sor daitezkeen estresa eta zailtasunak hobeto kudeatzeko aukera ematen baitigu.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....
24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
— ARTZAI GAZTAK —

Granja Martikonea, GAITZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Josune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

LekuOnBERRi
TABERNA

948 507 628
lekunbertaberna@gmail.com
C/ Aralar, 19 baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri_Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

MARTILLO Txiki
PERKUSIO ESKOLA

Errotalde 19,
Lekunberri

www.martillotxiki.com
679 938 016

● ● Mikel Lasarte Artola (Azpirotz)

“Iraganean harrijasotzailea nintzen, gaur egun motozerrarekin eskulturak sortzen ditut”

Harrijasotzaile izatetik artisautzara egin du jauzi Mikel Lasarte azpiroztarrak. Gaur egun, motozerra eta enborrak erabiliz, forma askotariko eskulturak sortzen ditu, eta hainbat herritan erakustaldiak eskaintzen ditu: Kantabrian, Burgosen, Valentzia inguruan, Zaragozan eta Castellonen, besteak beste. Bere lanak, gehienbat, egurrez egindako enkargu pertsonalizatuak izaten dira. Horien artean, Baso Biziduna izeneko proiektua nabarmentzen da, Ilundainen (Nafarroa) amaitu berri duena.



Mikel Lasarte eskulturak sortzen.
Argazkia: Mikel Lasarte.

Nolatan hasi zinen eskulangintzan?

Nire anaia zurgina da, eta txikitatik ikusi dut egurra lantzen. Gaztetan harrijasotzailea nintzen, baina lesio desberdinengatik utzi behar izan nuen, eta horrek eskulangintzara bideratu ninduen.

Ikusgarri proiektua sortu zuen Berastegiko Luis Erasok; bera izan zen motozerrarekin eskulturak egiten hasi

zen lehenetarikoa. Jubilatu zenean, berak pasa zidan lekukoa. Ni 38 urterekin hasi nintzen, 2012 urte inguruan, eta 2018 urtetik buru belarri ari naiz eskulturgintzan.

“Nire anaia zurgina da, eta txikitatik ikusi dut egurra lantzen”

Nolako eskulturak egiten dituzu?

Animaliak dira nire lan gehienen protagonistak, baina bestelako gaiak ere jorratu ditut. Abaltzisketan, adibidez, emakume baserritarren omenezko pieza bat egin nuen; emakumeen siluetak eta keinu sinbolikoak irudikatu. Zaragozan, berriz, bertako erritu zaharren eskultura bat sortzeko eskatu zidaten. Lan oso desberdinak egiten ditut, betiere egurra oinarri hartuta.

“Gaztetan harrijasotzailea nintzen, baina lesio desberdinengatik utzi behar izan nuen”

Lehiaketetan parte hartzen duzu?

Bai, parte hartzen dut. Nafarroako Sanferminetako urteroko txapelketan aritzen naiz, eta urte askoan Burgin eta Agurainen ere parte hartu dut. Urtero, hiru txapelketa horiek izaten dira niretzat garrantzitsuenak.



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



Lasartek sortutako onddoak

Eskulturak egiteko, normalean mendira joaten naiz, sortzen den kearen ondorioz ezin baita leku itxietan lan egin. Xehetasunak lantzeko eta bestelako mandatuak egiteko, nire tailerrean aritzen naiz, Irurtzunen.



Lasartek sortutako hontza.



Mikel Lasarte Sanferminetako eskulturak sortzeko lehjaketan.

Tokiko jasangarritasuna nola lantzen duzu?

Oso garrantzitsua iruditzen zait. Inguruan baliabide natural ugari daude, eta haiek aprobetxatzea positiboa da. Adibidez, gaztainondoa,

akazia edo zedroaren egurra erabiltzen dut.

Azkenaldian, udaletxe askok plastikozko birziklatuzko mahaiak eta bankuak jartzen dituzte. Hori ongi dago, baina uste dut bertako egurrari baliorekia ematea onuragarria dela, oreka bilatzen badugu.

Irurtzunen parke bat egin nuen, eta Plazaola trenbideko bankuak bertako egurrekin berritu nituen: gaztainondoa eta akazia erabili nituen, eta emaitza iraunkorra da.

“Animaliak dira nire lan gehienen protagonistak, baina bestelako gaiak ere jorratu ditut”

Zenbat denbora behar duzu pieza bat egiteko?

Ohituta nago azkar lan egitera. Nafarroako txapelketan, ordu erdiko txandak izaten ditugu, eta praktika handia daukat horrelako erritmoan. Beste txapelketetan, 3-4 orduko lanak izaten dira.



Lasartek sortutako dragoia.

Hala ere, pieza on bat amaitzeko, denbora gehiago behar da. Motozerra da nire tresna nagusia, baina bukaeran beste tresna txikiago batzuk erabiltzen ditut xehetasunak lantzeko. Presarik gabe, behar den denbora hartzen dut lana amaitzeko.

“Jendea harrituta geratzen da, batez ere erakustaldietan lanaren abiadura ikusita”

Nolakoa izaten da jendearen erreakzioa?

Jendea harrituta geratzen da, batez ere erakustaldietan lanaren abiadura ikusita. Hasieran, enbor bat besterik ez da ikusten, eta ordu erdian eskultura osatua ikusteak sorpresa sortzen du. Ohituta gaude enborrean marra bakar batekin lanari ekitera, eta batzuetan, marrazkirik gabe zerbait sortzea berezia izaten da.

Konturatzera udara hemen da...

Bai, eta duela gutxi Castellóko azoka batean izan nintzen. Igeldotik eta Gipuzkoako beste herri batzuetatik ere deitu naute. Poliki-poliki, udako erakustaldiak martxan jartzen ari dira.

Nola lortu daiteke zure artelan bat?

Nire lanak, argazkiak, bideoak eta pieza bakoitzaren azalpena **ikusgari.net** webgunean daude ikusgai. Harremanetan jartzeko, deitu **686 477 897** telefono zenbakira edo idatzi **mikel.lasarte.artola@hotmail.es** helbide elektronikora.

Errenta aitortpena euskaraz egin nahi duzu?

2024ko errenta aitortzeko kanpaina

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ 2025

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA
Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz zein internet bidez, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA
• Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
• Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.
• Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu. intere.

INTERNET BIDEZKOA
• Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu.
• Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berariaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
• Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu.

U-MA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu nahian, 2024 urteko errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiaraziko dute apirilaren 1etik aurrera UEMAK eta hainbat erakunde publikok, elkarlanean.

Internet bidez, telefonoz, banketxean edo aholkularitzan egin dezakezu, aurrez aurre, euskaraz!

Autolikidazio proposamena

Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz zein Internet bidez, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

Mekanizatua

- ▶ Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- ▶ Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.
- ▶ Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

Internet bidezkoa

- ▶ Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu.
- ▶ Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berariaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- ▶ Beste modu batean egin baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu.

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**HOSTAL
BETELU**
Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak
Erreserbak:
948 51 30 26 · 663 97 67 09

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

**OTXOTORENA
okindegia**
ARRIBE
ADI!! TLF BERRIA:
948 51 30 32

AGENDA

MAIATZA

3 - 10:00-13:00 Ziklotur Plazaola. Kurtsoa, MTB Teknika. Hirumuga Park, Lekunberrin.

4 - Natur Bideen Eguna. Bizikleta martxa ez lehiakorra. Eurovelo I, Plazaola Bide Berdea (Doneztebe- Jauntsarats-Latasa-Lekunberri, 56km). Plazaola Bide Berdea (Lekunberri-Uitzi-Lekunberri, 10km). Lekunberrin.

15-25 - Euskaraldia.

17 - 17:00 'Euskaraz bai!' haurrentzako tailerrak. Mugiron.

18 - Mendialdeko Azoka Ibiltaria. IV Latxa arrazako Enkante Nazionala, Gorritin.

23 - 17:00-20:00 Ziklotur Plazaola. Kurtsoa, Trailforks aplikazioa. Lekunberrin.

24 - Dantzari txiki eguna. Tirikitrauki Dantza Taldea. Lekunberrin.

25 - Ttutturre Mendi Irteera. Fraideen iturria. Moncayo. 10:00-14:00 VII Loreen Azoka. Lekunberriko Plazan.

30 - 19:00-20:30 Ziklotur Mahai ingurua, zikloturistentzako helmuga. Lekunberri.

30-31 - Kirol Asteburua. Lekunberriko Plazaola Kirolgunean eta Lekunberriko pilotalekuan.

MAILOPE ERALDATZEN

Mailopek fase berri bati ekin dio, gaur egungo beharrei egokitutako proiektu komunikatiboa lantzen hasi da eta aldizkariarekin batera, Aralar Irratia ere proiektu horren parte izanen da.

Lanketa horretan guztion ekarpenak jaso nahi ditugu, nolako aldizkaria/ irratia nahi duzu? Zer sumatzen duzu faltan? Zeren berri izan nahi zenuke? Eskualdea nola saretuko zenuke?

Maiatzaren 27an, arratsaldeko 18:30ean, Beteluko udaletxean elkartuko gara.

Animatu eta parte hartu!

Larraun-Lekunberriko

Kulturaldia



MAIATZA

10

09:30 Sendabelarren inguruko tailerra I. Silvia Akerretarekin belarra jasotzeko txangoa. Izena-ematea Kultura Sailan maiatzaren 7ra arte. Larraungo Udaletxean.
10:30-14:30 Nafarroako Editoreen Azoka. Lekunberriko Herriko Plazan.

16

19:00 'Euskaraldia Andereño Rositarekin' antzerki-bakarrizketa. Gabari gune Irekian.

17

10:00 Sendabelarren inguruko tailerra II. Silvia Akerretarekin ukenduak sortzeko tailerra. Izena-ematea Kultur Sailan maiatzaren 8ra arte. Etxarrin.

21-25

Janela: Lehiu Bat Gorka Urbizuren Unibertsora Begira. Ibai Arrietaren argazki erakusketa. Gabari Gune Irekian.

Maiatzak 21: 18:00 inaugurazioa.
Maiatzak 22-23: 18:00-20:00
Maiatzak 24-25: 11:00-14:00 · 17:00-20:00

Bisita gidatuak:
Maiatzak 23 18:00
Maiatzak 25 12:00

30

18:30 Komiki tailerra: Geuretik sortuak. Uxue Bereziartuarekin. 50 urtetik gorakoentzat. Izena-ematea Kultura Sailan maiatzaren 23ra arte. Gabari Gune Irekian.

31

14:30 Bertso-bazkaria. Julio Soto eta Maialen Lujanbiorekin. Txartelen salmenta iragarriko da. Lekunberriko Kattagorri Elkartean.

EKAINA

8

12:00 Abesbatza. Aldazko San Martin Elizan.

14

Larraungo Eguna 2025. Lekunberrin.

MIKEL

AZKARATE TOMASSONE

ABELTZAINA

/ ANIZ /

LANDA-INGURUNEAN

BIZITZEA

ABANTAILAZ ETA

AUKERAZ BETETAKO

ETORKIZUNeko

AUKERA DA

**ITZULI
ETA
Ekin**

**KONEK
TATZEKO
GERATU**

ESTITXU

LARREA LEACHE

DISEINATZAILE GRAFIKOA

/ AGOITZ /

ÁLVARO

GÓMEZ NIETO

FAMILIAKO MEDIKUA

/ IZABA /

**BERRIRO
KONEKTATU
HASTEKO**



ruralmood.com

**Pueblos
activos
pueblos
vivos**

**Herri
gogotsiak
herri
biziak**

#RURALMOOD

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

2030

cederna
garalur

consorcio
EDER

Teder

ZONA MEDIA
CONSORCIO DE DESARROLLO